

- KANALAK

Enpresak komunikatzeko eta segmentu-merkatuei bere balorezko proposamena helarazteko moduarekin lotuta daude kanalak.

Lehen esan dugun bezala, "Correos" enpresarekin aliantza egingo dugu, gure produktuak bezeroei bidaltzeko proposamenarekin. Izan ere, momentuz gure produktuak erosteko aukera bakarra pantaila baten bitartez izango da, plataforma digital guztietan eskuragarri egongo den aplikazio eta web-gune batean.

Bezeroak erositako produktuak denbora jakin batean ailegatuko zaie, hots, 5-7 lan-egunetan. Bestalde, "Prime" aukera izanez gero, 1-3 lan-egun bitartean helduko da.

Web-gune honetan, irudi batzuen bidez ikusgarri egongo dira salgai dauden produktu guztiak, gehien gustuko duzun kolorea eta diseinua aukeratzeko. Horretaz aparte, aukeratzeko duzun produktu bakoitzaren informazio espezifikoa, beherapenak eta prezioa eskuragarri egongo da. Web-gune honetara sartzeko eta zure erosketaren bilakaera jarraitzeko, erabiltzaile eta pasahitz bat beharrezkoa da. Modu honetan, bakoitzaren erosketak pertsonalak izatea ziurtatzen dugu.

Denbora aurrera joan ahala eta gure negozio-planak fruituak ematen baditu, hau da, planifikatutako guztia behar bezala ateratzen baldin bada eta arrakastatsua izaten badu, denda fisiko bat zabaltzea pentsatuta daukagu.

